## 2014KO PASAIAKO FESTETAN ERASO SEXISTA EDO SEXUALEN AURREAN JARDUTEKO PROTOKOLOA

### Sarrera

Protokolo honen helburua da txosna eta tabernetan lan egiten duten edo Jai Batzordeko kide diren pertsonei baliabideak ematea, jakin dezaten nola jokatu eraso sexista bat gertatu aurretik, gertatzen ari denean edo gertatu ondoren.

### Zer da eraso sexista?

Eraso sexistak dira emakume izate hutsagatik emakumeei zuzendutako jokabideak, helburu dutenak gizonek emakumeen gaineko botere-harremana izatea eta emakumeen osotasunari eraso egin eta emakumeen independentzia ukatzen dutenak. Irainak, ukitzeak, jazarpena edo eraso fisikoak eta bortxaketak izan daitezke.

Beste eraso mota bat ere badago, eraso matxista deiturikoa. Eraso horiek gizona-maskulinoa-heterosexuala edo emakumea-femeninoa-heterosexuala eskema betetzen ez duten pertsonei zuzentzen zaizkie, ezarritako ordena soziala mantentzeko asmoz.

Testuak emakumeek bizi dituzten eraso sexistei egiten die erreferentzia, horiek baitira maizen gertatzen direnak; baina ez dugu ahaztu behar beste eraso batzuk ere gertatu daitezkeela sexua, generoa edo identitate sexuala direla eta.

### Erasorik gabeko espazioak

Txosnak eta tabernek puntu lila jarriko dute “Hemen ez dugu emakumeen aurkako indarkeriarik onartzen” leloarekin, adierazteko espazio horretan ez dela eraso sexistarik onartzen eta eraso horiek gaitzetsi egiten direla.

## PROTOCOLO DE ACTUACIÓN EN CASOS DE VIOLENCIA SEXISTA O SEXUAL EN LAS FIESTAS DE PASAIA 2014

### Introducción

Con este protocolo pretendemos dar herramientas a las personas que trabajáis en las txosnas, bares o que sois parte de la Comisión de Fiestas para poder actuar antes, durante y después de producirse una agresión sexista.

### ¿Que es una agresión sexista?

Las agresiones sexistas hacen referencia a aquellos comportamientos dirigidos a las mujeres por el hecho de serlo que tiene como fin mantener la relación de poder de los hombres sobre las mujeres y que atentan contra la integridad de las mujeres y niegan su independencia. Pueden ser insultos, tocamientos, acoso, o incluso agresiones físicas y violaciones.

Existen otro tipo de agresiones, denominadas agresiones machistas, que se dirigen a personas que no reproducen el esquema hombre-masculino-heterosexual o mujer-femenina-heterosexual, y que tienen como fin mantener el orden social establecido.

El texto hace referencia a las las agresiones sexistas que sufren las mujeres, puesto que son las que con mayor frecuencia se dan, sin dejar de lado que también pueden darse otro tipo de agresiones por razón de sexo, género o identidad sexual.

### Espacios libres de agresiones

Las txosnaz y/o bares colocarán el distintivo del punto lila con el lema “Aquí no toleramos la violencia contra las mujeres” para mostrar que ese espacio es un espacio libre de agresiones sexistas, y como actitud de repulsa ante este tipo de agresiones.

HEMEN EZ DUGU
EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARIK ONARTZEN
AQUÍ NO TOLERAMOS
LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES

**Nola jardun eraso sexista bat gertatzen bada**

1.- Erasoa jasan duen <u>emakumearekin hitz egin</u>, jakiteko nola dagoen eta neurriren bat hartu nahi duen. Emakumearen erabakia errespetatu behar da.

2.- Jarrera matxista edo gogaikarriren bat gertatzen ari bada, <u>pertsona horri eskatuko diogu gelditzeko</u>, eta gelditzen ez bada, espazio horretatik <u>botako dugu</u>.

3.- Ahal den neurrian, erasoa jasan duen emakumeari lasai egoteko moduko leku batera lagunduko diogu eta <u>azalduko</u> laguntza eska dezakeela:

4.- Emakumeak egoki baderitzo, **Udaltzainei deitu (943 004 300)** emakumea dagoen tokira gerturatu daitezen eta aholkatu, lagundu eta informazioa eman diezaioten.

5.- Emakumeari jakinarazi zerbitzu hauek ere eskatu ahal dituela:

**Actuación en caso de producirse una agresión sexista**

1.- <u>Se hablará con la mujer</u> (o mujeres) que haya sufrido la agresión para preguntarle cómo se encuentra y si quiere tomar alguna medida al respecto. Se debe respetar la decisión de la mujer.

2.- Si se está dando alguna actitud machista o agresión que molesta o está molestando, <u>exigiremos a la persona (o personas) que pare</u> dicha actitud y si no para se le <u>expulsará</u> del espacio.

3.- Dentro de lo posible se acompañará a la mujer que ha sufrido la agresión a un lugar donde pueda estar tranquila y se le <u>informará</u> de que puede solicitar ayuda.

4.- Si la mujer lo considera adecuado, llamar a la **policía municipal (943 004 300)** para que acudan al lugar donde se encuentra la mujer y puedan asesorarle, acompañarle e informarle.

5.- Hacerle saber a la mujer que también puede solicitar los siguientes recursos:

| **INFORMAZIOA, AHOLKUA EDO LAGUNTZA** | **INFORMACIÓN, ASESORAMIENTO Y ACOMPAÑAMIENTO** |
|---|---|
| • Foru Aldundiaren larrialdietako gizarte-zerbitzuak: 112 (Udaleko gizarte-zerbitzuen lan orduetatik kanpo)<br>• Eusko Jaurlaritzaren 24 orduko telefono-atentzioa: 900 840 111<br>• Pasaiako Udalaren gizarte-zerbitzuak: 943 00 43 20 Astelehenetik ostiralera, 8:30-14:30. | • Servicios sociales de Urgencia de la Diputación: 112 (Fuera del horario de trabajo de los servicios sociales municipales)<br>• Atención telefónica 24 horas del Gobierno Vasco: 900 840 111<br>• Servicios sociales municipales: 943 00 43 20 Lunes a viernes de 8:30 a 14:30. |
| **LAGUNTZA MEDIKOA** | **ASISTENCIA MÉDICA** |
| • Iztietako anbulatoriora gerturatu edo deitu Osakidetzako Larrialdietara: 112<br>Pertsona horrek jakin behar du osasun-zentro batera | • Acercate al ambulatorio de Iztieta o llama a Urgencias de Osakidetza: 112<br>La persona tiene que saber que si acude a un centro |

| | |
|---|---|
| joaten bada, arreta ematen diotenek salaketa tramitatzeko betebeharra dutela; beraz, baloratu behar du gertatutakoari buruzko zer informazio eman nahi duen.<br><br>Bortxaketa izan bada, azaldu behar zaio ez duela arropa aldatu behar edo bere burua garbitu behar, frogarik ez ezabatzeko.<br><br>Komeni da osasun-zentroan lesio-agiria eskatzea. | sanitario las personas que le atiendan tienen la obligación de tramitar una denuncia, por lo que tiene que valorar que información de lo sucedido quiere dar.<br><br>En caso de violación, hay que informarle de que no debe de cambiarse de ropa, ni lavarse, para no eliminar pruebas.<br><br>Conviene que la persona pida en el centro sanitario un parte de lesiones. |
| **SALAKETA** | **DENUNCIA** |
| • Ertzaintza: 112<br><br>Salaketa jartzeak suposatzen du prozedura judiziala abiatzea. Emakumeak aholkularitza juridikoa eska dezake salaketa jarri aurretik. | • Ertzaintza: 112<br><br>La denuncia supone la puesta en marcha de un procedimiento judicial. La mujer puede solicitar asesoramiento jurídico antes de poner la denuncia. |

6.- Emakumeari <u>galdetzea</u> bere konfiantzako nork lagun diezaiokeen pauso horiek ematen. Ez badu inor, ERABAKITZEA nork lagunduko dion; ez utzi bakarrik!

7.- Gerta daiteke erasoa jasan duen emakumeak berehala ez erabakitzea zer pauso eman nahi duen. Edonola ere, honako telefono-zenbaki hauek eman:

- Udalaren gizarte-zerbitzuak: 943 00 43 20 Astelehenetik ostiralera, 8:30-14:30.
- Eusko Jaurlaritzaren 24 orduko telefono-atentzioa: 900 840 111

6.- <u>Preguntar</u> a la mujer qué persona de su confianza puede ayudarle a realizar los pasos. Si no existe nadie, DECIDIR quién le acompaña, no dejarla sola!

7.- Es posible que la mujer agredida no sepa inmediatamente qué pasos quiere dar. En cualquier caso facilitarle la tarjeta que recoge los siguientes números de teléfono:

- Servicios sociales municipales: 943 00 43 20 Lunes a viernes de 8:30 a 14:30.
- Atención telefónica 24 horas del Gobierno Vasco: 900 840 111




8.- Azkenik, Udaltzainen parte hartzerik ez bada izan, hurrengo egunean edo ahalik eta lasterren, gertatutako guztiaren berri eman Udaltzainei.

8.- Finalmente, si no ha habido intervención de la Policía Municipal, al día siguiente o lo antes posible dar parte de lo ocurrido a la Policía Municipal.

OHARRA: Erasoa jasan duen emakumea atzerritarra bada eta egoera erregularrean ez badago ere, prozedura bera jarraituko da, laguntza eta larrialdiko zerbitzuak jasotzeko eskubidea bera baitu.

ATENCIÓN: Si la mujer agredida es extranjera y está sin regularizar su situación se seguirá el mismo procedimiento, ya que tiene los mismo derechos a la asistencia y a los servicios de urgencia.